

## **Gaia: Alarma egoera: Tributu eta zerga-bilketa arloko neurriak**

### **Ebazpena**

LEHENENGOA: Azokako tasa (otsaila), musika eskolako tasa (otsaila), Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga, azokatxoaren okupazio tasa eta kioskoen tasetan zabalik dauden ordainketa epeak 2020-06-01ra arte luzatzea.

BIGARRENA: Martxoaren 14tik aurrera zabalik zeuden tributuen ordainketa epeak, borondatezko epean zein exekutiboan, 2020-06-01ra arte luzatzea.

HIRUGARRENA: Azoka (martxoa) eta musika eskolako (martxoa) tasen errolden kitapenak alarma egoera amaitu arte ez igortzea. Alarma egoera amaitzean eta erroldak jendaurrean 15 egun egon ostean, ordainketa epeak zabaltzea eta ordaintzeko azken eguna 2020-06-01 finkatzea.

LAUGARRENA: Musika eskolako martxoko tasaren kitapen guztietan %50eko hoberia aplikatzea ofizioz.

BOSGARRENA: Mahai eta aulkien okupaziogatik, azokatxoaren okupazioagatik eta itxi behar izan diren udal jabari publikoko okupazioengatik igorri beharreko tasen kitapenen erroldak alarma egoera onartu denetik eta egoera hau amaitu arte ofizioz laintzea.

SEIGARRENA: Alarma egoera onartu denetik, eta egoera hau amaitu arte tributu kitapenik ez igortzea.

ZAZPIGARRENA: Sastar-batzeko zerbitzuaren tasaren hoberia aplikatzeko, ordenantza fiskala aldatzeko espedientea hasteko agindua ematea.

